



❖ HERNANI'N MUSIK Golden Apple Quartet ikusteko, sarrerak salgai

Golden Apple Quartet taldea Hernanira etorriko da datorren abenduaren 10ean, *Los Golden en serio* emanaldia egingo dute, Biterin. Ikustera joan nahi duenak, sarrerak hartzeko aukera gaur du, Biterin, goizez eta arratsalde, 6,5 euroan. Goizez erdiak salduko dira, 10:00etatik 14:00etara. Beste erdiak arratsalde, 19:00etatik 22:00etara. ||

❖ ATLETISMOA - XXXIII. DONOSTIAKO MARATOIA

Asier Larrañaga eta Eva Esnaola hernaniar azkarrenak, Donostiako Maratoian

Eva Esnaolak Gipuzkoako Txapelketako bigarren postua lortu du. Elijah Karanja keniarrek irabazi du mutiletan; Tirhas Enun etiopiarrek nesketan. 2.652 korrikalarik hartu dute parte; 27, hernaniarrak.

ASIER Larrañaga eta Eva Esnaola izan dira azkarrenak, hernaniarren artean, Donostiako Maratoian. 42 km-ak egiteko 2:34:07 behar izan ditu Larrañagak, eta Eva Esnaolak berriz 3:09:08.

Mutiletan, Unai Santamaria ere gertu ibili du Larrañagak, 2:36:57; eta Eduardo Gallego ere ez zen urruti, 2:38:58. Sailkapen orokorrean, 23, 32, eta 44garren postuak lortu dituzte. Elijah Karanja keniarrek irabazi du proba, aurreikuspen guztien kontra, 2:13:29.

Nesketan, bigarren hernaniarra Ines Arreitunandia izan da, 3:45:45. Sailkapen orokorrean, neskarik azkarrenak etiopiarrek izan dira, Tirhas Enun eta Tigsti Gebreselassie, Hernanin oso ezagunak direnak, gainera, Angel Olaranek sortutako fundazioko kide baitira, Etiopia Utopia.

Hotz haundia egin du gaur Donostian ere, baina horrek ez



Hernaniarrak, beroketetan etenaldi bat eginda, argazkirako.

ditu atzendu korrikalariak. 2.652 partehartzaile izan dira; hernaniarrak 27 behintzat bai. Beroan sartzeko korrikarik egin ezin zutenak ikusleak ziren, animatzera joan direnak, hutsik egin gabe. Hernanitik ere inguratu dira batzuk; denek ere ondo merezia izango dute gaurko atsedena.

Sergio Roman 3garren Azkoitiko 10 km-etan
Sergio Roman hernaniarrak bigarren postua lortu zuen larunbatean Azkoitiako Proban. 10 km-ko proba zen eta 31:23 behar izan zituen hernaniarrak. Irabazleak: Yeray Varela (30:47) eta Maider Gaztañaga (36:11). ||

SAILKAPENA HERNANIARRAK*

1	Asier Larrañaga	2:34:07	23
2	Unai Santamaria	2:36:57	32
3	Eduardo Gallego	2:38:58	44
4	Harkaitz Fernandez	2:49:38	142
5	Sergio Uzkudun	2:51:11	164
6	Ibon Iriondo	2:54:25	206
7	Aitor Arluziaga	2:55:04	221
8	Mikel Lazkano	3:06:06	525
9	Lander Muñoz	3:06:21	528
10	Eva Esnaola	3:09:08	606
11	Iñigo Uzkudun	3:09:49	634
12	Oscar Vega	3:14:59	804
13	Mikel Aierdi	3:15:46	839
14	Martxel Rodrigo	3:15:57	844
15	Xabat Aizpioleta	3:17:03	875
16	Patxi Artola	3:21:23	1027
17	Garikoitz Rekondo	3:21:23	1028
18	Xabier Zaldua	3:21:48	1041
19	Froco. Javier Galan	3:26:32	1176
20	Iker Persona	3:28:02	1250
21	Joxe Mari Patxe	3:41:16	1675
22	Ines Arreitunandia	3:45:45	1794
23	Andoni Lete	3:47:41	1854
24	Iñaki Urretabizkaia	3:49:52	1900
25	Agustín Urretabizkaia	3:54:46	1996
26	Mikel Zaldua	4:15:42	2283
27	Jesus Maria Olano	4:44:05	2419

(*) Antolatzaileek emandako datuak. Hernaniar bezala izena eman dutenak

❖ BITERI

Bisuteria ikastaroa eta gazteentzako Dantza Garaikidea, Biterin

ESKAINTZA berezi moduan bi ikastaro emango dituzte Biterin, abenduan eta datorren urtean. Bisuteria edo abalorio ikastaroa emango dute batetik, eta gazteentzako Dantza Garaikidea bestetik.

Bisuteria ikastaroa 6 hilabetekoa da, urtarilaren 13tik ekainaren 9ra, ostegunetan,

19:00etatik 20:00etara. Apuntatzeko epea, abenduaren 9tik 17ra. Prezioa: bertakoentzat 47 euro; kanpokoentzat 59.

Dantza Garaikidea hiru egunetan emango dute: abenduak 27-28-29, 17:00etatik 18:00etara. Gazteentzat da eta dohanik. Abendutik aurrera apuntatu liteke. ||



Dantza Garaikidea probatu nahi duenak, abenduan du aukera.

❖ SASKIBALDIA

Erraz irabazi zuen Hernanik

Aldabe Irun taldeak apenas eman zion buruko-minik Teklan-Hernaniri. 70-42 irabazi zuten etxekoek, eta taldekide guztiek jokatu zuten; denek oso maila onean. Lider dago Teklan, 8 partidu irabazi eta 1 galduta, eta lehenengo buelta bukatzeko 4 partidu falta direla. Datorren astean deskantsua dute, eta hurrengo bi partiduak, gogorak izango dira, bigarren eta hirugarrenaren aurka baitute. ||

❖ EAJ-PNV

'Batu Gaitezen', bihar Biterin

Batu Gaitezen ekimena da herriarrekin parte hartzeko inizatiba bat, eta EAJk bihar aurkeztuko du Hernanin, 17:30etan, Biterin. ||

A B E N D U A N

ROOMBA aspiragailu robot bat zozketatuko dugu ASTERO:



BALANTXAN EROSKETA egiten dutenen artean, eta KIXKAL eta AKEIT tabernetan KAFEA hartzen dutenen artean

cenor **BALANTXA**
ELEKTROGAILUAK
Nagusia, 17 - ☎ 943 33 20 44

kixkal
taberna
nagusia, 15
hernani

KEIT
Plaza Berri HERNANI

☎ **TELEFONOAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egumez:** **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauzez:** **Chucula** Kardaberaz 48 - 943 551793

❖ GOIZUETA

Eguraldiak ez, baina jendeak jarri zuen giroa Goizuetan

Azoka zuten larunbatean Goizuetan, urteko festa haundietakoa. Ganadu azoka, aurtan betizuak protagonista zirena, eta artisauak eta bertako produktua izan ziren bertan. Era-kustaldiak, bazkaria, eta giro ederra izan zituzten; eguraldia hotz, lagunartea bero. **II**



Artisaua lanean, larubateko azokan

Arg.: Ixiar Miner

◆ PELOTA

Finalerdietara Hernaniko 4 bikote

Paletarietan, hernanien arteko finalerdia izango dira, Gipuzkoako Txapelketan, ligailan aurrenak geratu baitira. Eskuz, Aizpitartek 22-16 galdu zuen finala Egiako Torneoan. Diario Vasco torneoan Gorrotxategi finalerdietara pasada. Gipuzkoako Txapelketan, Ojuelek eta Gorrotxategi mailari eutsi diote. **II**

❖ BERTSULARITZA

Agin Rezola finalera, Xenpelan Sarian

Errenteriako Xenpelar Sarian, kanporaketa saioa zen atzo, eta Agin Rezola Hernaniko Bertso Eskolako astigartarrak irabazi zuen (Julio Sotoren aurretik). Beraz, abenduaren 8an kantatuko du finalean. Unai Gaztelumendik ostiralean, ez zuen lortu finaleko pasea; Asier Azpirozek aukera du ostiralean, 20:00etan, Xenpelar Etxean. **II**

◆ FUTBOLA

Ligako partidurik onena Beasainen

Bai tentsio eta bai presio alde-tik, ligako partidu onena jokatu zuen Hernanik, larunbatean, Emakumezkoen ligan, eta 2-3 irabazi zuten. 0-2 irabazten ari ziren. Hortan zirela, bost minutuan 2 falta eta bi gol, sartu zituen Beasainek. Hernanik ez zuen bera egin eta faltaz, 2-3koa sartu zuten. Golak: Anak 2, Ileniak 1. **II**

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA			PELOTA-Gipuzkoako Txapelketa		
Erregional Ohorezko Maila	Hernani-Berio	2-0	Sen. Binaka	Behar Zana/Ojuel-Gorrotxategi	22-12
Emakumezkoen Liga	Beasain-Hernani	2-3	Sen. Binaka	Lagunak / Esnal-San Sebastian	20-22
Erregionala. 1go maila	Hernani-Añorga	2-3	Aleb. Eskuz	Manex Noble/Euskal Giroa	2-0
Jubenila. Liga nazionala	Ariznabarra-Hernani	2-2	Aleb. Eskuz	Hondarribi/Axel Alkorta	2-0
Jubenila. Lehenengo maila	Easo-Hernani	3-2	Inf. Ezkuz	Antigua/Ekaltz Cisneros	2-0
Kadeteak. Ohorezko maila	Hernani-Sporting de Herrera	0-1	Kad. Binaka	Alvarez-Altuna/Aurrera Saiaz	22-6
Kadeteak. 1go maila	Amara Berri-Hernani	1-4	Jub. Binaka	Gazteleku/Urkizu-Elorza	22-18
Kadeteak F-11	Hernani-Zumaia	2-0	Jub. Binaka	Azkoitia/Lujanbio-Murgiondo	5-22
Infantil. Ohorezko maila	Mariño-Hernani	1-4	Jub. Paleta	Suberri/Goikoetxea-Huizi	5-30
Infantil partehartzea	Usurbil-Hernani	8-0	Jub. Paleta	Intxurre/Pagola-Ugalde	10-30
Infantil txiki	Hernani-Beasain	1-1	Jub. Paleta	Ikasberri/Irazustabarrena-Semper	6-30
Alebinak	Añorga-Hernani	2-4	Egia Finala	Eneko Aizpitarte-Urbieta II / Joanena-Rezusta	16-22
BOLEIBOLA			DV final laurdana	Ioldi-Gorrotxategi / Andreu-Untoria	22-19
Seniorrak	Virgen del Campo-Hernani	3-0	ERREMONTA-AZYZA BINAKAKO TXAPELKETA		
SASKIBALOIA			1. partidua	Etخابe II-Zubiri/Oñatz-Barrenetxea IV	35-27
Seniorrak	Hernani-Aldabe Irun	70-42	2. partidua	Zeberio II-Ion/Uterga-Urrutia	40-31
ARETO FUTBOLA			3. partidua	Agirresarobe-San Miguel/Urtasun-Etxeb. III	40-36
1go Maila	Garetxe Lazkao-Yone Boutique	4-3	4. partidua	Matxin IV-Gaztelu/Zulaika-Olazar	30-24

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 676 78 60 93
20120 Hernani

mikel armendariz

proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

GAUR Zeru oskarbi, beraz hotz. Izotz punturen bat izango dugu, eta behelainoa. Eguzkia berotzen joan ahala, altxa egingo du eta giro ederra jarriko. Iluntzerako berriz lainoa. Min.2º / Max.9º

BIHAR Termometroak berdinean. Goizean epelago, lainotuta egongo delako. Lainoa eta euri lanbroa nagusi, bihar. Elur kota 700 metro inguruan. Min.5º / Max.10º

◆ ERREMONTA

2.000 euro, Juan Aristi Urrestillakoarentzat

Juan Aristik irabazi zituen boteko 2.000 euroak, Galarretan. Urrestildarra izan zen emaitza bat asmatu zuena, eta bestera gehien gerturatu zena. Asteartean, 2.200 euroko botea. **II**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **MIGUEL ARRARAS ULAYAR**

JAUNA

Atzo hil zen, 86 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Haren emaztea: Graxi Liceaga; seme-alabak: Asun, Izaskun eta Josetxo, eta Irene; bilobak: Iban eta Saioa; birloba: Naia; anai-arrebak: Petra (Mongerren alarguna), Maria Isabel (Armendarizen alarguna), Tere (†) eta Jose Rudi, Luis Mari (†) eta Mikeli Caracciolo (†), eta Bixen (Olarteren alarguna); ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTELEHENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko azaroaren 29an

Helbidea: Orkolaga, 2 - 2. Ezk.

Oharra: Gorputza HERNANIKO FUNERARIA ORBEGOZO TANATORIOAN egongo da, arratsaldeko 17:00ak arte.

† **MIGUEL ARRARAS ULAYAR**

- Goian Bego -

"Ez dago heriotzik maitasuna gaingituko duenik"

MAITASUNEZ, ZURE ILOBAK

Hernanin, 2010eko azaroaren 29an

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pisua salgai Zikuñagan. 3 gela eta komuna berriak eta sukaldea. Deitu: 665 711 199.

Oblatosen lokala-bulegoa (20 m2) alokagai, eta garajea salgai edo alokagai. Deitu: 628 947 235

Volkswagen Polo, 1.4 kotxea salgai. Gasolina. 10 urte. Egoera onean. Gris zilarra kolorekoa. **Prezioa:** 2000€. Deitu: 649 209 609

Pisua alokagai: Antzolian (residentziala), 2 logela, saloi, sukalde-komedorrea, komuna (kalefakzioa) eta garaje itxia. Hutsik. 800€ (abala). Deitu: 600 60 97 54

Kapritxozko etxea salgai Santa Barbara auzoan. 3 logela, 3 komun, saloi haundia, sukaldea. Behean soziedadea eta ganbara logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 kotxe). **Prezioa:** 629 682 827.

Audi TT FSI salgai (2000cc, 200zaldi, 2007urtekoa). Oso egoera onean, beti garajea. 26.500€. Deitu: 658 058 330.

Pisu polita salgai Karabelen. 2 logela, dena kanpora, guztiz berritua (246.000€). Deitu: 658 712 923.

Pixua salgai erdialdean eta toki lasaiean. 2 gela dauzka eta denak kanpoaldera ematen du. **Prezioa:** 32.000.000pza. Deitu: 619 813 357

Duplex-a salgai Lizeaga kalean, oso egoera onean, argitsua, 120m2, 3 logela, 2 komun, trasteroa. 390.000€ Deitu: 609 823 472

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Enara Goikoetxea. Terapiak energetikoak. Kristaloterapia, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

OPEL
Auto Hernani

HERNANIN, ZURE BETIKO TAILERRA.

KONPONKETAK: MEKANIKA ETA KARROZERIA

TXAPAN ETA PINTURAK: GURE ESKURIK ONENAK, BETI PREST II...ZURE AUTOAK MEREZI DUELAKO.

FILTRO ETA OLIO 59€-TIK ALDAKETA AUERRERA II

GURPILEN ALDAKETA

AUTO-SALMENTA: BERRIAK eta 2.ESKUKOAK

JAUREGI, 76 (GALARRETA ONDOAN)
Tel.: 943 55 77 25